

Lebiton konpartsa kalez kale ibili zen

Andoaingo erraldoi eta buruhandien konpartsak jendetza erakarri zuen, aurreko larunbatean / 4-5

Andoaingo eta Urnietako Udal egutegietan parte hartzeko deialdiak martxan daude / 15

Odola emateko aukera berria izango da Urnietan, datorren azaroaren 3an. Hitzordua Lekaion da / 7

Kasu positiboak igo dira Andoainen. Urnietako eremu gorrian dago, bigarren astez jarraian / 9

ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu urriaren 31n: goizeko 03:00tan, 02:00ak izango dira.



Lulu gogoan

Musika, dantza, ilustrazioa eta hitza uztartu zituzten Sarobeko kultur ikuskizunean / 2-3



Argazki lehiaketa Urnietako Udal egutegia osatzeko

Gaia: BERDINTASUNA

Argazkiak aurkezteko azken eguna: AZAROAK 5

Informazio guztia Urnietako Udalaren webgunean (QR kodea txertatu)

Animatu eta parte hartu!





Unai Pascual Denonartean argitaletxeko editorea, Antton Kazabon idazlea eta Jokin Mitxelenena ilustratzailea, Lurdes Iriondoren bizitoki izan zen Moro etxea atzean dutela, San Juan plazan. AIURRI

Lurdes Iriondo sortzailea, ipuin eta kantu bilakatuta

Euskal kulturagintzan eta kantugintzan ezinbesteko ikono diren artistak haurren begietara jartzea izan zen Antton Kazabon idazle oiartzuarraren hasiera-hasierako burutazioa

Xabier Lasa URNIETA

Benito Lertxundi naiz eta *Xabier Lere* ttiki liburuak kaleratu zituen lehenbizi, eta Lurdes Iriondo *Lulu* besapean duela etorri da oraingoan, Jokin Mitxelenak egindako ilustrazioek apainduta. Unai Pascual editoreak zuzentzen Denonartean argitaletxeak argitaratu ditu hirurak ere.

Haur eta gazteentzako biografiak egitera zerk bultzatu zuen kontatu du Kazabonek. “Aspalditik konturatuta nengoen gure belaunaldikoentzat idoloak izan direnak badoazela, eta zoritxarrez, ikastetxeko liburuetan apenas agertzen diren. Desagertu egingo ote zaizkigu? galdetzen nion nire buruari. Kezka horri erantzun nahiak bultzatu ninduen abentura honetan sartzera, album ilustratuen eskutik”.

Biografiak idaztea gauza bat da, baina ekimen gehiago eran-

tsi behar izan ditu hiru abeslarien inguruko egitasmoak aurrera egin zezan. “Abeslarien familiekin hitz egin nuen egitasmoa azalduz, eta baita ere Orio, Oiartzun eta Urnietako udalekin. Oso harrera jaso nuen guztiengandik, eta halaber, haur eta gazte literaturan liburuak ikaragarri zaintzen dituen Denonartean argitaletxeak apustu sendoa egiteko asmoa azaldu zidan”.

Urnietako Udalak eta bertako kulturagileek agertu duten jokatibidea goraipatu du Kazabonek. “Udaleko kulturaren arloa dararmaten Mikel Artolak eta David Roscok neuk baino oraindik ilusio handiagoa jarri zuten egitasmoarekin, esanez Lurdes Iriondok itzal handia zela urnietarrentzat, eta behar zena egingo zutela bera omentzeko. Egia esan, liburuko aurkezpenetarako herriko kulturagileekin elkarlanean



Ikuskizunean, honakoek hartu zuten parte (argazkian): Ana Belen piano-jolea, Edurne Orbegoza abeslaria, Jabier Etxarri gitarra-jolea eta Lurdes Iriondo musika eskolako ikasleak, Ene Kortaxarena, Ane Martin, Mikel Lertxundi, Nahia Iñurrita, Selma Lekuona eta Costanza Mateos. Horiekin batera aritu ziren Easo gazteen abesbatza, Eli Herrero abeslaria, Izaskun Aizpurua dantzaria eta Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena liburuaren egileak. AIURRI

prestatu duten ekitaldiak harrituta utzi nau, zer nolako sentiberatasunarekin egin duten guztia”.

Unai Pascual editoreak, Deno-nartean argitaletxearen asmoak agertu ditu. “2015ean, Yolanda Arrietak idatzita Bixenta Mogelen biografia kontatzen duen Argiaren alaba argitaratu genuen, eta Lertxundi, Lete eta Iriondo-renak heldu dira segidan. Jada euskal sortzaile handien bilduma osatzen ari gara. Laugarrena da Iriondiorena, eta urratzen hasitako bide honetatik jarraitu nahi genuke. Oraingoz ez dakigu noiz eta norekin, baina jarraipen bat izango du bildumak, dokumentazio biografikoa, historikoa, geografikoa... biltzen joan ahala; izan ere, haur eta gazte literaturak aukera ugari ematen dizkigu, eta horietako bat haurrentzat oinarritzko biografiak egitea da, kultur transmisioa xede izanda”.

Biografia, modu errazeen

Haurrentzako biografiak dira Lertxundi, Lete eta Iriondo-ren gaineko ipuinak, eta alde horretatik, ezin liburu sakonak egin, Kazabonek zehaztu duenez. “Gazteei ezin zaie sortzaile horien diskografiarekin eta bibliografiarekin korapilatu. Oinarritzko transmisioa behar da egin, gazteek pertsonai horiekin interes pittin bat erakuts dezaten. Horretarako, ipuinaren kutsua hartzen dute hiru liburuek, nahiz eta bertan asmatutako ezer ez egon”.

Abeslari horiek txiki-txikitatik agertzen dira liburuetan, orduan jasotako eraginak gerora izango zirenak izan zitezen, eta baita zein izan zen euren ibilbidea. “Edonor artista izan daitekeela, horixe da zabaldu nahi den ideia nagusienetako bat”, Kazabonen hitzetan. “Lertxundik, esaterako, ez dakit noiz erabaki zuen kantaria izatea, baina gazte hastapenetan gazte elizkoia izan zen, Elvis Presleyren itzulitako abestiak abesten zituena gitarrarekin, eta arian-arian, konturatzerako, antzektokietan hasi eta fama hartu zuen. Leteri, gaztetan, Oiartzungo koroko zuzendariak esan zion aldegiteko bere bistatik, eztarri zakarra zeukala-eta. Iriondok, txikitatik bazekarren musikarako oinarria (piano ikasketak zeuzkan, aitzak gitarra oparitu zion..), baina 20 urte zituela, Kongora misiotara joateko erabakia hartu zuen. Azken unean, ordea, osasuneko gaixotasun larria topatu zioten. Hor-taz, Kongoak misiolari on bat galdu zuen, eta guk euskal sortzaile handia irabazi. Esan daiteke kasualitate huts batek eragin zuela orain 60 urte neska gazte bat oholtzara igo zedin eta askoren idolo bihurtu zedin”.

Modernitatearen ikur

Pascualek Lurdes Iriondo-ren izaera aurrerazalea, azpimar-tatu nahi izan du. Modernotasuna, ez bakarrik antzokietan publikoaren aurrean, baita ere gero-ra ere kantugintza utzi zuenean.

“Bizi zuen denborari aurre hartuta jardun zuen beti. Plazetako emozioak eta txaloak alde batera utzi, eta bere inguruan, Urnietan jarraitu zuen sortzaile, eragile eta bide urratzaile gisa. Etxeko jardinean herriko haurrekin antzerkia, dantza eta kantua jorratuz, bideoak erdal hitzunez euskaraz ikas zezaten bideoak eginez... Sentibera zen umeekin, eta hezkuntzan aurrerazaleztat jotzen den Montessori metodoa erabili zuen, beren garapena errespetatzea, naturarekin bat eginda bizitzea... aldarrikatzen duena”.

“Gazte gera gazte ta ez gaude konforme...” Iriondok sortutako letrak isurtzen duen espirituak ez duela inongo gaurkotasunik galdu, gaineratu du Kazabonek.

Ilustrazio dotoreak

Jokin Mitxelena Donostiako ilustratzaileak atondu du liburua: “Liburuaren formatua ezarrita zegoela heldu nintzen hona. Kasik esan daiteke marrazkiak definituta zeudela, eta eskulana falta zela. Alderdi estetikoaren gainean dokumentatu beharra zegoen, eta Urnietako zenbait toki eta eraikuntza (Lurdesen bizitokia, eliza, udaletxea, iturria...) liburura ekarri. Egia da ez direla benetakoak liburuan margotu diren elementu guztiak, lizentziaren bat edo beste hartu baitut umeen begitara erakargarriagoa egin dadin produktua. Baina funtsean, agertzen diren eszenak errealak dira”.



Eli Herrero, Easo gazteen abesbatzako abeslaria. AIURRI



Urnietako
udala



Goikoplazan amaitu zen kalejira, eta bertan izan zen azken emanaldia. Erraldoi eta buruhandien jatorrien berri eman zuten, dantza saio ikusgarria eskaintzearekin batera. AIURRI

Lebiton konpartsaren berragerpena

Andoaingo haur eta gaztetxoak ez ezik, inguruko zaletuak ere zain zeuden. Aurreko larunbatean Andoaingo erraldoi eta buruhandien konpartsak kalejira egin zuen; aspaldiko ohitura berreskuratu zuten

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Garai bateko ospakizunetik gertu geundela ikus zitekeen, larunbat goizean. Musukoak ikus zitezkeen herrikideen aurpegian, baina gainerakoan haurrek eta gaztetxoek erraldoien atzetik eta buruhandien aurretik gozatu ederra hartu ahal izan zuten. Lebiton Andoaingo erraldoi eta buruhandien kalejiran jendetzak parte hartu zuelako. Prestaketa lanak egin ostean, konpartsa Zumea plazatik errepidera irteten Kale Nagusirantz abiatzeko. Segidan, Hammelingo txistulariaren ipuinean bezala, dozenaka herrikidek dultzaineroen martxari eta erraldoien ibilerrari jarraitu zieten. Juanita Alkain plazatxoan eta Bastero plazan

geldialditxoak egin eta gero, azken saioa Goikoplazan eskaini zuten. Udalak ekitaldia antolatu zuen bertan, konpartsako protagonisten inspirazio izandako pertsonak eta tokiak gogoan hartuz. Udal ordezkari zabaleta gerturatu zen ekitaldira, eta aukera baliatu zen merkatura atera dituzten panpinen berri emateko. Platero izeneko artisauak egindakoak dira, eta opari modura, Udalak eta Lebiton konpartsak erraldoi bikote berezi bana jaso zuten Plateroren eskutik. Urrez margotutakoak ziren. Lebitonen izenean Diego Barrasak une hori baliatu zuen mikrofonoa hartu eta herriko haur eta gaztetxoei eskertza adierazteko.



Bastero plazan saioan azken etenaldia egin zuten, Goikoplazara abiatu aurretik. AIURRI



Jendetza abiatu zen Zumea plazatik Kale Nagusira. AIURRI



Buruhandiak haurren atzetik ibili ziren. Argazkian, emakume estraperlista Juanita Alkain plazan. AIURRI



Erraldioen figuren egilea da Platero, eta larunbateko ekitaldira opari eta guzti hurbildu zen. Urrez margoturiko bikote bana eman zien Udalari eta Lebitoni. Argazkian, Txitxu Ruiz zinegotzia, Platero erraldioen egilea eta Diego Barrasa Lebiton konpartsaren ordezkaria. BASTEROW

Oktoberfest Andoainen

Larunbatekoa ez zen bakarrik egun seinalatua izan haur eta nerabeentzat, baita gazte eta helduentzat ere. Hori bai, beste ordutegi batean eta beste aldarte batean egin zuten ospakizuna. Txuribeltz eta 97 tabernek garagardo-festa bana antolatuta zuten, eta ospakizun horren aitzakian dozenaka herrikide gauaz gozatzen aritu ziren.



97TABERNA

Erraldoiak salgai

Azelaingo bikotearen gomazko panpinak 30 euroko prezioan salgai jarri ditu udalerriko hainbat merkatalgunetan Andoaingo Udalak. Honakoetan: Delgado, Ernaitza eta Stop liburudendak eta Anita, Amabi eta Pottoko merkatalguneak.



AIURRI

IRITZIA

ELA ANDOAIN

Ratio duinagoak aldarri, kontzentrazioak egin dituzte langileek Gipuzkoako adineko egoitzetan



Hogei zentro baino gehiagotan egin dira elkarreratzek. Beste bi greba egun deitu dituzte urriaren 28an eta azaroaren 12an.

Gipuzkoako adineko egoitzetako langile ugari bildu dira gaur zentroetako atarietan, hiru urte luzez greban izan ondoren, beren egoera gero eta gordinagoa baita. Gainera, Gipuzkoako Aldundiak uko egiten dio negoziatzioari, eta erresidentzietako errealitatea onartu ordez, egungo eredu defundatzen jarraitzen du medioetan. Hala nola, errealak ez diren ratioak daudela defendatzen ditu, bi egoliarreko langile bat dagoela esanez, datu zuzena honakoa denean: hamairu egoliar daude langileko.

Horren aurrean, Gipuzkoakoa 20 zentro baino gehiagotan atara dira langileak kalera, benetak ratioak eta egoera zein den aldarrikatzeko. Era berean, Aldundiari eskatu diote eran-

tzunkizunez jokatu dezala, eta mahaiaren bueltan eseri dadila.

Gaur egindako mobilizazioek jarraipena izango dute, beste bi greba egun deitu baitituzte datorren urriaren 28an eta azaroaren 12an egingo diren greba egunekin. Hona gaurko kontzentrazioak egindako lekuak: Errenteria (San Markos eta Sagrado Corazón Erresidentziak), Irun (Gurutze Gorria), Oiartzun (Petr Lekuona), Arrasate (Iturbibe), Soraluze (Ntra. Sra. Merced), Azkoitia (San Jose), Azpeitia (San Martin), Zumaia (San Juan), Ordizia (San Jose), Zumarraga (Argixao), Amasa-Villabona (Santiago), Zumarraga (Argixao), Soraluze, Lazkao (Sanitas), Andoain, Zarautz, Lasarte-Oria (Atsobakar), Donostia (Villa Sacramento, Berra, Txara I eta II, Zubiaurre, San Ignacio, San Jose eta Alaietxe).



POSTONTZIA

ERRIGORA EUSKARAREN ALDEKO EKIMENA

Auzolanean abiatu du Errigorak udazkeneko kanpaina

"Herriak egiten du herria" lelo hartuta, 2021eko Nafar hegoaldeko uztu euskarari puzka kanpaina abiatu du Errigorak Ablitasen. Urriaren 23tik azaroaren 11ra luzatuko den auzolan-riketa erraldoi honetan Nafarroa hegoalde eta erdialdeko produktuz osatutako 3 saski eskainiko dira eta horien balioaren %25 zonaldeko euskalgintzari bideratuko zaio. Euskal herritarren elkartasuna beharrezkoa dela gogorarazi du Errigorak, zonaldean AEK-k eta ikastolek euskaldunak sortzen jarrai dezaten eta Sortzenek sare publikoan D eredu indartzeko lan egin dezan, baita Agerraldia egitasmoak Nafarroa hegoalde eta erdialdean euskararentzako aro berri bat ireki dezan ere.

«Herriak egiten du herria» leloa izango du 2021eko Nafar hegoaldeko uztu euskarari puzka kanpainak. Urriaren 23tik azaroaren 11ra luzatuko den auzolan-riketa erraldoi honetan Nafarroa hegoalde eta erdialdeko produktuz osatutako 3 saski eskainiko dira eta horien balioaren %25 zonaldeko euskalgintzari bideratuko zaio.

Euskal Herriko txoko guztietako herritarrak bildu gara gaur Ablitasen, hain zuzen, auzolanean kutxak osatzen hasteko. Arratsaldean, berriz, 3.000 lagun bilduko dituen kontzertua antolatu du Agerraldiak Tuteran. Guztira 300 boluntario aritu

gara lanean egun eder hau posible egiteko. Herrilaren erakusgarri den gaurko argazkia, baina, kanpaina honen atal bat besterik ez da. Egunotan, 200 herri baino gehiagotan ibiliko dira beste ehunka auzolangile kanpainaren berri ematen edo eskaerak jasotzen eta, eskaerak egiteko sasoia bukatuta, milaka eta milaka kutxa banatzen.

Izan ere, Errigoraren ibilbide laburra herrigintza ariketa ederra izan da; herriak herriari eginiko ekarpen xume bezain inspiratzailea. Milaka lagun elkartasunari esker 2013tik 1.400.000 euro baino gehiago bideratu ditugu Nafarroa hegoaldean eta erdialdean euskaldunak sortzeko herritik jaiotako egitasmoak sustengatzera. Eta, aldi berean, diru-ekarpen hori sortzeko bidea elikadura-burujabetzara pausuak emateko baliatu dugu.

Bide horretan, herrilana izan dugu lanabes. Txikitik handira apustu eginez eta inori konturik eskatu gabe, nork bere ahal eta gogoaren arabera egindako ekarpen askotarikoak batzeko gai izan gara eta, herritarrak kontsumitzaile edo erabiltzaile huts bihurtu diren garaiotan, auzolanaren balioa eta baliagarritasuna frogatu dugu.

Agerraldiaren sorrera nora bide berean emandako pausu berria da. Izan ere, denbora gehiegi joan zaigu Nafarroa he-

goaldean eta erdialdean aldaketaren zain, egun seinlatu batean euskararen arazoak zerutik eroritako soluzio magiko batek konponduko balitu bezala. Herritarrok ekarri ezean, aldaketarik ez dela helduko sinetsita sortu dugu, hain zuzen, Agerraldia. Bere garaian erromatarrek *ager vasconum* izendatu zuten eremua berreuskaldundu nahi duten herritar guztiak saretu eta mugimendu ekintzaile bat sortzeko. Izan ere, bokazio praktikoa du Agerraldiak: egiteko eta eginarazteko sortu da; instituzioen utzikeriaren edo, are, eragozpenen aurrean, herri-ekimena nagusitu dadin, euskararentzat aro berri bat zabaltzeko.

Urteotako diru-ekarpena ezin bestekoa izan da bertako ikastolek eta AEK-k herritarrak euskalduntzen jarrai dezaten eta sare publikoan gero eta guraso gehiagok D ereduaren aldeko hautua egitea helburu duten Sortzen kanpainak laguntzeko. Agerraldia bera ere kanpaina honen dinamikatik sortu da, eta kanpainak uzten duen diru-ekarpenak ematen dizkio lanerako baliabideak. Hala ere, bidea ez da amaitu eta, oraindik orain, herritarren elkartasuna behar-beharrezkoa dute egitasmo horiek guztiek. Azaroaren 11ra arte bada modu goxo bat elkartasuna bideratzeko: Errigoraren saskiak eskatzea.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etbez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Truxuelo.

Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Urnieta).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoainDARRA
euskaraz

“Jendea hasi da mugitzen, baina asko falta da oraindik iraganeko egoerara bueltatzeko”

XABI SALILLAS URNIETAKO GURIA TABERNAKO ZERBITZARIA

Aurreko bi ostiraletan berrekin diote ohitura zaharrari. Ostiral honetan pintxopoteaz gozatzeko aukera berria izango da Urnietako taberna-jatetxe ezagunean

Erredakzioa URNIETA

Bi aste arau muga ia guztiak bukatu zirela, bi pintxopote saio egin dituzue. Nolakoak izan dira?

Bai, urriaren 15ean izan zen lehena, eta, 22an, bigarrena. Ez da iraganeko pintxopoteak bezalakoa, bi urte atzera sekulako jendetza biltzen zelako taberna barruan eta atarian. Orain agerikoa da ostiral arrunt batean baino jende gehiago bertaratzen ari dela, baina neurrian.

Tabernara ostiraletan bakarrik etortzen den jende asko dago. Gure antolaketa ere pandemia aurrekoa baino hobea dela esango nuke. Pintxoak beirazko erakusleiho batekin babestuta daude, eta eskatu egin behar zaizkio zerbitzariari. Ez da lehen bezala, non bezeroak pintxoren bat hartzen zuen nahierara. Ambiente gehiago ekarri du arau murriztaileak kentzeak.



Salillas Guria tabernan. AIURRI

Lehen bezala ez dela esan duzu. Zergatik?

Litekeena da jendea zuhurtzia apur batekin ibiltzea, akaso oraindik beldur pixka bat daukalako.

Eta zer dio jendeak? Zer entzuten da barraren bestaldetik?

Pintxopotea noiz hasiko ote zen askotan galdetu ziguten, baina berriro indarrean jarri zenean ez da halako jende

olderik etorri. Nire ustez, iraganeko egoerara bueltatzeko denbora beharko da, pintxopotearen kasuan. Astean barruan, aldiz, oso agerikoa da jendea hasi dela iraganeko ohiturak berreskuratzen. Pandemian jendea kolpeka etortzen zen, baina orain etengabe, etenik gabe. Nik horrela izatea nahiago, lan-jardunaldia azkarrago pasatzen baita. Terraza handia daukagu, eta hori ere ondo dator jendeak pixkanaka bere ohiturak berreskuratu ditzan. Afalostean bai aldatu da egoera. Lehen jendea kopa bat hartzen geratzen zen, lasai. Orain ia denak afaldu eta gero etxera joaten dira. Eta afaltzera jende gehiena ordu bertsuan etortzen da.

Mezuren bat eman nahi zenioke bezeroari?

Zuhurtzia pixka batekin ibiltzeko. Geuk babes neurriak hartu ditugun bezala, bezeroak ere antzera jokatzeko badu, denontzat hobe.

*Pintxopotea ostiraletan egiten dute Gurian, 19:00tik 21:00era.

DEIALDIA

Odola emateko aukera Urnietan, azaroaren 3an



Odol-emaelek Urnietan. AIURRI

Odol-emaelek elkartasunez jokatzeko beste aukera bat izango dute, datorren astean. Azaroaren 3an, 16:30ean hasita, odola emateko aukera izango da Lekaion. Deitzaileek adierazi dutenez, "azken hilabeteetan bezala ezinbestekoa izango da hitzordua aurretik hartzea. Odola eman nahi duten pertsonen ondorengo telefono zenbakira deitu behar dute txanda hartzeko: 943 00 78 85. Katarroa, mukiak edo eztula duten pertsonen ez gerturatzea eskatu zaie.

EFEMERIDEA

PCR probak Urnietan 13-40 urte bitartekoei

2020ko urrian birusa oldartu egin zen, bereziki Urnietan. Urriaren 20an hasita, Udalaren eskumeneko jarduera eta ekitaldi ia guztiak eten egin zituzten. Osakidetzaatik iristen ziren datuak onbideratu arte, gizarte bizitzari lotutako jarduerak eta ekitaldiak etetea erabaki zuten. Urriaren 21ean eta 22an Osakidetza 13-40 urte bitartekoei PCR proba egiteko deia egin zien. Urnietako udal pilotalekuan egin zituzten probak. Egape eta Magale ikastetxeetan ere egin zituzten PCR probak.

GORA ETA BEHERA



Omenaldia Mertxe Artolari

Erretiro eguna ospakizun bilakatu zuten Berrozpe ikastetxean, aurreko astean. Mertxe Artola omendu zuten, erretiroa hartu duela eta. Ikastetxeak eskertza adierazi zion: "Etap berri bati ekingo dio bere bizitzan, eta ikastetxean emandako denboragatik eta egin duen lanaren ondoren merezitako atsedena izango du. Eskerrik asko egindakoagatik eta maitasunagatik, Mertxe".



LSB


DATORRENA

Gau beltza, halloween festa

Aurreko asteburuan agertu ziren jaia iragartzen duten lehen zantzuak. Larunbatean eta igandean moztarrok ez dira faltako Andoainen eta Urnietan.



AIURRI



Azken bi asteen kasu positibo ugari agertu da Urnietan. URKO VALLEJO

Intzidentzia-tasa handienetakoa du Urnietak, Euskadi osoan


Hamabost egunetan 37 kasurekin, Urnietak agerraldi berria bizi duela esan daiteke. Eremu gorrian darrai

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Aurreko bi igandeetan eremu gorrian dagoela, intzidentzia-tasa gorenean sartu da hirugarren astez jarraian. 434,85ekoa zen urriaren 17an, eta 595,91koa urriaren 24an. Agurain eta Urnieta udalerriak dira, egun, intzidentzia handiena dutenak.

Urnietako datuen garapena

- Irailak 27-Urriak 3: 6 positibo, 241,58ko intzidentzia-tasa.
- Urriak 4-10: 4 positibo, 161,06ko intzidentzia-tasa.
- Urriak 11-17: 23 positibo, 434,85ko intzidentzia-tasa.
- Urriak 18-24: 14 positibo, 595,91ko intzidentzia-tasa.



Eguneroko kasu positiboak eguneroko bilakatu dira Urnietan. URKO VALLEJO



Aurreko bi grafiken ondorioa da intzidentzia-tasaren igoera handia. URKO VALLEJO

Gorunzko joera eskualdean, Gipuzkoan eta Euskadi osoan

UCI-ZIUt看 aldaketarik ia ez da egon, baina ospitaleratzeetan igoera handia eman da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Agerraldi berri batean murgildu al gara dagoeneko? Ala atarian gaude? Edo akaso egun gutxiko epean gaintutuko den ez ohiko egoeran gaude? Erantzuna astez asteko boletinetan aurkitu beharko dugu, osasun alarma-egoera bertan behera uztea erabaki denetik maiztasun horrekin informatzea erabaki baitu Jaur-laritzak.

Urriak 24, igandea:

Intzidentzia-tasa metatua:

- Andoain: 66,72.
- Urnieta: 595,91.
- Gipuzkoa: 93,14.
- Euskadi: 76,10.

Ospitaleratze datuak:

- Positiboak denera: 927.
- Ospitalean: 81.
- UCI-ZIUt看: 24.
- Hildakoak: 15.

Urriak 17, igandea:

Intzidentzia-tasa metatua:

- Andoain: 33,36.
- Urnieta: 434,85.
- Gipuzkoa: 73,15.
- Euskadi: 63,64.

Ospitaleratze datuak:

- Positiboak denera: 747.
- Ospitalean: 48.
- UCI-ZIUt看: 26.
- Hildakoak: 15.

Urriak 10, igandea:

Intzidentzia-tasa metatua:

- Andoain: 40,03.
- Urnieta: 161,06.
- Gipuzkoa: 65,65.
- Euskadi: 56,60.

Ospitaleratze datuak:

- Positiboak denera: 653.
- Ospitalean: 48.
- UCI-ZIUt看: 29.

**OSASUN
ALARMA-EGOERA
INDARGABETU
DENETIK DATUAK
OKERTZEN HASI DIRA**



Frutos eta Gonzalez PSE-EEko Udak taldeko kideak, artxiboko irudian. AIURRI

PSE-EEK lan-mahaia osatzeko deia luzatu dio alkateari

Ordezkaritza duten alderdi politikoei bertan izatea eskatu du Herme Gonzalez sozialisten bozeramaileak

Erredakzioa URNIETA

Urnietako PSE-EEren udal taldea kezkatuta dago koronabirusak herrian duen eraginagatik, eta lan-mahaia osatzeko eskatu dio Jorge Segurado Urnietako alkateari, “ordezkaritza duten alderdi politiko guztiak bertan egon daitezten, COVID-19aren osasun-krisiak sortutako egoerari aurre egiteko”. Ekimena gaur goizean erregistratu du herriko Udaleko erregistroan.


Herme Gonzalez bozeramaile sozialistak honakoa adierazi du: “Gure udalerriak eremu gorrian jarraitzen du, 100.000 biztanleko 400 kasuko intzidentzia-tasa gaintutuko ondoren, Eusko Jaur-laritzako Osasun Sailaren buletin epidemiologikoaren arabera. Birusaren transmisioa oso altua da; zehazki, intzidentzia-tasa 595,91, kezkarria kokatzen da. Aurreko astean, Urnieta izan zen gorritz zegoen Euskadiko

udalerri bakarra, hots, kutsatzeko arrisku maila altuena adierazten duena”.

Urriaren 22an izandako Bozeramaile-Batzordean, Gonzalez azalpenak eskatu zizkion Jorge Segurado alkateari, eta honen arabera alkateak “ezin izan zuen azaldu Urnietan zer gertatzen ari den. Horregatik, alderdi politiko guztien lankidetzaz ezinbestekoa da egoera larri hori gaintutuko”.

Azkenik, zinegotzi sozialistak ere erantzukizuna eskatu die urnietarrei: “Jakin badakigu gutxiengoa dela neurriak betetzen ez dituen jendea, baina garrantzitsua da gure jokabidearekin arduratsuak izateko beharra berrestea; guztion arteko elkartasuna funtsezkoa da pandemia honen aurka borrokatzeko, eta elkarrekin lan egin behar dugu krisi sanitario, ekonomiko eta sozial honetatik ateratzeko”.





Igoera handi samarra eman da, azken asteetako joera hautsiz. URKO VALLEJO


Andoainen positiboen kopurua biderkatu egin da, astebetean

Azken asteetan joera apala zen Andoainen, eta horri esker eremu berdean zegoen. Aste honetan aldaketa eman da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Andoaingo garapen epidemiologikoa egokia zen urriaren hasieran, eremu berdean baitzegoen. Irailean sartzearekin batera oso kasu positibo gutxi agertu zirelako. Gipuzkoako eta Euskadiko batz bestekoaren azpitik zegoen. Azken astean,

ordea, jauzia eman da eta 2 kasu positibotik 8ra pasa gara. Horren ondorioz eremu horian sartu da Andoain, Euskadiko batz bestekora gerturatu da. Aste honetakoak salbuespena den edo joera berri bat den ikusteko, datoren asteko boletina argitaratu arte itxaron beharko dugu.



Aste hasieran 6 kasu agertu ziren, eta asteburuan 2 gehiago. Denera, 8. URKO VALLEJO



Intzidentzia-tasa igotzen ari da Andoainen, Gipuzkoan eta Euskadi osoan. URKO VALLEJO

"Erne ibili behar dugu"

Hiru aste dira larrialdi-egoera bertan behera geratu zenetik, eta intzidentzia-tasa hazi besterik ez da egin. Asteartean Gotzone Sagardui Osasun Sailburuak "erne ibili behar dugu" adierazi zuen. 12 urtetik gorako populazioaren %89ak txertaketa osoa egin badu ere, oraindik txertatu gabe dauden helduei gertuen dagoen osasun etxera deitzeko eskaera egin zien. Bestalde, oinarritzko osasun neurriak betetzeko eskaera luzatu zuen.



Gotzone Sagardui Osasun Sailburua. AIURRI

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Herriak egiten du herria

urriak 23 - azaroak 11



errigora.eus

Saskien balioaren %25 Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskaigintzara bideratuko da



Saski beltza 55€



Saski berdea 65€



Saski zuria 75€



Eskola kalean, Kale Nagusian eta Zumea plazan postu bana ipini zuten. AIURRI

Harrera bikaina jaso du Katxalin elkartearen kanpainak

Larunbatean xingola arrosa herrikide askoren paparrean ikus zitekeen. Merkatariek ere deialdiarekin bat egin zuten



Izeian elementu ikusgarrien bidez egun seinatuarekin bat egin zuten. AIURRI



Erakusleihoari erreparatuta, Ormendik bat egin zuen Katxalinekin. AIURRI



Iturbe oinetako dendan puxika arrosak jarri zituzten. AIURRI



Urrezko domina lortu dute. LSB

Urrezko domina EuskoSkills txapelketan

La Salle Berrozpe ikastetxeko ordezkari bat Madrilén ariko da, estatu mailako lehiaketan

Aiurri komunitatea

La Salle Berrozpe / ANDOAIN

Andoaingo ikastetxeak Estatu-ko Lanbide Heziketako SpainSkills olinpiadetan hartuko du parte datorren martxoan, Diseinu Mekanikoa-CAD modalitatean, Euskadiko EuskoSkills txapelketako modalitate berean urrezko domina irabazi ondoren. Euskadikoa Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzak antolatu du, FICBA erakustazokan. 150 ikaslek hartu dute parte, 19 modalitateetan. La Salle Berrozpek horietako 4 modalitateetan hartu du parte (Elektronikan, CNC Fresaketan, Soldaduran eta Diseinu Mekanikoa-CADen). Urrezko eta zilarrezko dominak lortu ditu Diseinu Mekanikoan, hurrenez hurren Garikoitz M. eta Josu P. ikasleen bidez, eta zilarrezkoa eta brontzezkoa Elektronikan, Julen B. eta Ander B. ikasleen bidez. Garikoitz M. bere irakaslearekin joango da Madrilera.

Ildo horretan, 2017an, La Salle Berrozpeko ikasle bat eta haren irakaslea -Xabier Puertas, ikastetxeko Lanbide Heziketako egungo zuzendaria- WorldSkill-sen lehiatu ziren, Abu Dabin, SpainSkill-sen urrezko domina irabazi ondoren.



AIURRI

Ezustekoa Extremadura kalean

Extremadura kaleko atari batean sutea piztu zen, aurreko ostiralean. Argindarraren kaxa batean kortozirkuitoa izan zen eta hainbat minututan eztanda eta txispazo txikiak izan ziren. Udaltzaingoa berehala sortu zuen segurtasunezko perimettoa eta sortutako sute txikia itzaltzen aritu zen. Ertzaintza eta Udaltzaingoa bertaratu ziren eremura.



AIURRI

Oinezko pasabidea itxita

Kaleberria eta Bertxin kalea trenbidearen azpitik lotzen dituen oinezko pasabidea itxita dago egun hauetan, lurrazpiko hoditeria berritzeko lanei ekin dietelako. "Txurreria" bezala ezaguna da tokia, eta lanei iraun bitartean oinezkoek joan-etorria Olagain aldera gerturatuta egin beharko dute.



Aurreko astean hizlari aritu zen Irantzu Varela. AIURRI

Irantzu Varela, hizlari Urnietan

Euskal feminista ezagunak Lekaion eman zuen hitzaldian indarkeria matxistaren historia azaldu zuen. Helburua, gaur arte normalizat ditugun jarrera asko jazartzailak direla azaldu nahi izan zuen

Irune Alfonso URNIETA

Varelaren iritziz, indarkeria matxista jasaten duten emakumeak indarkeria politikoaren biktima dira; sistemaren helburua emakumeak esanekoak bihurtzea dela dio, eta, horretarako, “indarkeria eredugarria” erabiltzen dela. Kazetariak azaldu duenez, emakumearen aurkako indarkeria guztietan helburu bera dago: feminitate eredu sortzea.

Kapitalismoaren sorrera eta sorginen ehiza

Kapitalismoaren sorrerarekin lan-banaketa sexuala sortu zen: batetik, gizonak fabrika “esplotatuak” izatera joaten ziren soldata baten truke. Bestetik, langile-klasearen biziraupena eta atsedena bermatzea zen emakumeen lana. Alabaina, emakumeek ez zuten soldatarik jasotzen,

izan ere, ez zen errentagarria kapitalismoarentzat. Horregatik, emakumearentzat maitasun erromantikoa, familia-eredua eta feminitate-eredua asmatu zen. Hau da, gizona lanera joaten zen soldata baten truke, eta emakumeak maitasunagatik eta familiagatik gizona zaintzea zuen bere betebeharr nagusi.

Eredu hori betetzen zuten emakumeak, “onak eta eredugarriak” ziren. Gainerakoak, oster, kapitalismoaren moldean sartzen ez zirenak, sorgintzat hartzen zituzten: ezkongabeak, senarrik gabekoak, medikuntza

tradizionala (landareak) erabiltzen zutenak, abortatzeko praktikak zekizkitenak etabar. Feminitatearen eredu ez jarraitzeagatik torturatuak eta erailak ziren, horrela, gainerako emakumeak eredu hartu eta, “ikas” zezaten. Hori da, hain zuzen, “indarkeria eredugarria”.

Horregatik dio Varela inoiz ez dela kasu isolatu bat, indarkeria hori sistematikoa dela. Gizarteak ahalbidetzen duelako inpunitate osoz indarkeriak aurrera jarraitzea eta emakumeak esanekoak eta feminitate ereduaren barruan sartzea.

INDARKERIA PATRIARKALAZ HITZ EGITEA GOGOKO DU, EMAKUMEEN AURKAKOA DELAKO

VARELARENTZAT EZ DAGO KASU ISOLATURIK, INDARKERIA SISTEMATIKOA BAITA

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den egoeraren gaineko datuak eman zituen kazetariak. Emakundek egindako ikerketa lan batean agertzen diren datuen arabera, 13 eta 17 urte bitarteko 3 emakumetik batek indarkeria bizi izan du bere mutil-lagunaren edo mutil-lagun ohiaren aldetik.

Feministak azaldu duenez, hori gertatzearen arrazoia gizartean emakumearen aurkako indarkeria oraindik onartu egiten dela da. Objektiboki indarkeria ez dela existitzen dio, gizarteak subjektibotasunetik adosten ditu zein praktika diren biolentoak eta zein ez. Adibide bat jarri zuen: batzuentzat zezenketak ez dira biolentoak, eta beste batzuentzat bai.

Genero-indarkeriarekin tankerako zerbait gertatu da. Gaur egungo genero-indarkeriaren lege integralean, “emakume moldean” sartzen diren emakumeak bakarrik babesten dira. Beste hitzetan, gizon batek eta emakume batek harreman afektibo-sexuala (bikote heterosexuala, edo ohiak badira) izan badute, eta gizonak emakumea erasotu badu, orduan genero-indarkeria izango da.

Lege horren bidez, gainerako kasu guztiak, kanpoan geratzen dira: sexu-langileak, ezezagunak erasotutako emakumeak, harreman sexual puntuala edo afektibotasunetik gabeko kasuak, lesbianeiei egindako erasoak... Kasu horiengatik hasi zen feminismoa genero-indarkeria seinalatzen eta kontzeptualizatzen. Jada sexu-indarkeria edo indarkeria matxista izenarekin bereizten hasiak dira.

Indarkeria matxista kontzeptua askoz zabalagoa da. Genero-indarkeria kontzeptu teknikoak litzateke eta indarkeria matxista askoz kontzeptu politikoagoa da, emakumeek egunero bizi duten indarkeria eta esplotazio mota guztiak hartzen baititu bere baitan; zaintza arloko esplotazioa adibidez, zaintza bien artekoa ez bada, indarkeria matxista izango da. Varela indarkeria patriarkalaz hitz egitea gustatzen zaio, indarkeria matxista emakumeen aurkakoa dela uste duelako. Hala eta guztiz ere, hizlariarentzat indarkeria patriarkala kontzeptu orokorragoa da, pertsonen aurkakoa, maskulinitasun hegemonikoak sortutakoa eta indarkeria guztiak biltzen dituen: LGTBQ+ ko-

lektiboko pertsonen aurkakoa, seme-alaben aurkakoa, emakumeen aurkakoa...

Laburbiltzeko, hiru indarkeria mota bereizten ditu Varela: lehenik, tresna teknikoak da genero-indarkeria, txostenetan zein berdintasun-planetan erabiltzen den ideia. Bigarrenik, askotariko indarkeria-motak adierazteko modua da indarkeria matxistaren kontzeptua; ez du zertan indarkeria zuzena izan, deserosotasunarekin, esplotazioarekin nahiz inbasioarekin du zerikusi estua. Eta, azkenik, indarkeria patriarkala, hots, maskulinitate hegemonikoak sortzen duena eta guztia biltzen duena.

Autodefentsarako herramientak sortzea

Autodefentsa feministarako proposamen kolektibo bat eraikitzeko prozesua hasten ari dela dio Varela. Haren iritziz, oso momentu interesgarria izaten ari da egungoa. Emakumeak hitza hartzen ari direla dio, baimenaz, onarpenaz eta insistentziaz hitz egiten ari direla, eta “onartuak” bezain “naturalizatuak” izan diren biolentziak seinalatzeraino.

Hasiera batean, gehiegizkotzat jotako zenbait erantzunak ematen duten gauzak planteatzen direla ematen du, baina, ondo kontzeptualizatuz gero, emaitzak lortzen direla dio feministak. Piropoen adibidea aipatu zuen: duela gutxi arte losintxak entzutea “normala” iruditzen zen nahiz eta emakumeek ez gustatu. Orain, aldiz, jada ez da ohikoa gizon batek emakumea piropoa botatzea. Varela hausnarketa batekin amaitu zuen hitzaldia. Zerbait mahaigaineratzean, autodefentsarako estrategia bihurtzen da, hori dela eta, barnerrak dauden bizipenak aztertze- ra, sakontze- ra eta komunikatze- ra animatzen du hizlariak. Emakumeen artean bizipen horiei aurre egiteko eta estrategiak sortzeko, deserosotasunak izendatzean eta beste emakume batzuekin partekatzean zigor-gabetasuna kolokan jartzen baita.

AUTODEFENTSARAKO PROPOSAMEN KOLEKTIBO BAT ERAIKITZEN ARI DELA USTE DU

Ehun lagun pasa Pasaban eta Peñaren emanaldietan

MENDIZALETASUNA Egileen eta ikusleen artean solasaldi aberasgarria sortu zen 'Chaupadi' eta 'Mendian hil, Hirian hil' dokumentalen ostean. Bertako eta inguruko mendizaleak hurbildu ziren Sarobera, Pasabanen eta Peñaren lanak ikustera

Andoni Urbistondo URNIETA

Sarobe guneko areto nagusiak aspaldi ikusi gabeko dizdira berezia erakutsi zuen pasa den ostegun eta ostiralean. Zanpatuz Mendi Elkartek antolatuta, bi emanaldi eskaini ziren Urnietako eta inguruetako herrietako mendi eta dokumental zaleentzat. Jende gehiago erakarri zuen ostegunekoak, Edurne Pasabanen 'Chaupadi' dokumentalak. Izan ere, jendeak bizi-bizi du tolosarraren oroitzapena, 14 zortzimilakoak igo zituen munduko lehen emakumea izan baitzen.

Hamaika urte luze pasa dira mendizaleak balentria hura egin zuenetik, baina bere emanaldiak 70 lagun pasa erakarri zituen Sarobera. Pasabanek oso tarte-ka eskaintzen ditu emanaldiak Euskal Herrian, pare bat asko jota urteko, eta bere testigantza estimatua da gure artean. Emanaldiak Nepalgo Saipal bailara-ko emakumeek jasaten duten diskriminazioa du ardatz, hilekoa dutenean bertako gizonak baztertu eta mendian dauden borda batzuetan bakartzen baitituzte, lizunak edo zikinak direlakoan. Pasabanek eta bere taldeak bailara hartako lau emakumeri Saipal mendia igotzeko aukera eman zieten, horrela jasaten duten diskriminazioa salatzeke. Lortu zuten, neurri batean, Nepalgo Gobernuak hilekoa duten emakumeak bakartzeko ohitura debekatu baitzuen.

Pasaban emakume nepalдарren oso gertuko agertu zen dokumentalean, eta bertaratutakoek emakume horien egungo egoeraz galdetu zioten mendizaleari. Baita gure jendarentzat hain ankerrak diren tradizioak Nepalen indarrean nolatan dauden, eta eztabaida interesgarria sortu zen. Ondorioa, Nepalgo eta gure jendartea aski ezberdinak direla, eta han gizaldi askotan



Edurne Pasaban kirolaria, Andoni Urbistondo alboan duela. JONATHAN LOPEZ

mantendu diren tradizioak tarte txikian aldatzea ez dela bate-erre erraza.

Heriotzaren gaineko hausnarketak

Ostiralean Iñaki Peña Bandres bertaratu zen Urnietara, 'Mendian hil, Hirian hil' dokumentala eskaintzera. 35-40 bat lagun gerturatu ziren, eta ez ziren gutxi izan malkoren bat isuri zutenak. Izan ere, Peñaren lanak mendian hil diren mendizaleen senideekin izandako solasaldiak ditu ardatz. Andoni Ormazabal, Mikel Crespo, Beñat Arrue... mendian hil diren hainbat lagun senideen testigantzak biltzen dira dokumentalean. Baita Juanjo San Sebastian eta Felipe Uriarteren moduko mendizale ezagunak, eta hainbat mediku eta psikologo...

Emanaldiaren bukaeran Peñak Iñigo Suberbiola lankidea eduki zuen alboan, eta ordu erdi pasatxo aritu ziren ikusleen jakin-mina asetzen. Heriotzari buruz galdetu zuten askok, ze harreman izan duten mendian senideren bat galdu duten familiekin, eta baita euren eguneroko jardunaz ere. Izan ere, me-

diku palatibistak dira Peña eta Suberbiola, eta heriotzarekin harreman zuzena daukate. Aho bizarrak gabe esan zuten, euren egunerokoan hilzorian dagoen gaixoa eta bere senideek ahalik eta bukaera onena edukitzea dela euren zeregin garrantzitsuena. Dokumentalak utzi dien arrastoaz galdetuta, aldiz, esaldi hau bota zuen Peñak: "Hildako mendizalearen senideekin laguntasun harremana gauzatu da, eta heriotzaren ostean gauza positiboak ere badaudela ikusi dute. Hildako mendizaleei urtero egiten zaizkien omenaldi bero eta jendetsuak, adibidez". Hitz horiek ikusleen txalo zarta soinutsua eragin zuten.

Pandemia azken adarkadak jotzen ari den honetan, Zanpatuz mendi elkartea lanean ari da, dagoeneko, datorren urteko udazkenean Urnietara dokumental erakargarri pare bat ekartzeko.

ZANPATUZEK ANTOLATUTAKO BI SAIOEK HARRERA BEROA IZAN ZUTEN MENDIZALEEN ARTEAN

KOMUNITATEA

KATXALIN ANDOAIN-GIPUZKOA

Martxa solidarioa urriaren 31n, Donostian



Katxalin Martxa Solidarioa, izenak ondo adierazten duen bezala, bularreko minbizia duten pertsonen aldeko martxa solidarioa da. Kontua ez da azkarago edo mantsoago ibiltzea, lehen edo azkena iristea, baizik eta marea arrosa erraldoi bat sortzea, kausa berak elkartuta: bularreko minbiziaren aurkako borroka. Eta hori izango da, hain zuzen ere, urriaren 31ko martxaren helburua. Ibilbideak lau kilometro inguru izango ditu, Donostiako Alderdi Ederrean hasi eta amaituko dena.

Izen-ematea urriaren 29ra bitarte
Izena emateak 8 euroko kostua du, eta merkataritza-ordutegian egin ahal izango da, honako leku hauetan: Arrasate, Eibar, Garbera, Ordizia, Tolosa, Urbil, Urola eta Zarauzko Eroski dendak eta Donostiako Apalategi

kirolak denda. Parte hartzen duten guztiek kamiseta tekniko bat jasoko dute martxa egiteko.

0 dortsala

Datorren urriaren 31ko Katxalin Martxa Solidarioa joaterik ez baina ekimenarekin bat egin nahi duenak 5 euroko edo kopuru hortik gorako dohaintza egin dezake. Transferentzia baten bidez egiteko aukera dago, transferentziaren kontzeptuan 0 dortsala adierazita. Hau da bankukontuaren zenbakia: ES02 2095 5001 0110 6104 1041. Lagundu kausari eta igo marea arrosara!

PROBA URRIAREN 31N GOIZEKO 11:00TAN ABIATUKO DA DONOSTIAKO ALDERDI EDERRETIK



UKE

Jubenil mailakoak, bikain

ESKUBALOIA Urnieta Guria Jatetxea gizonetzkoen jubenil taldeak Elgoibarren aurkako partida irabazi zuen (27-25). Laugarren garaipenarekin, lehen postuan sailkatuta daude. Nesken taldeak ere garaipena eskuratu zuen (38-23) Ereintzaren aurka. Bigarren doaz.



SD EUSKALDUNA

Gorengo maila, lehia bizian

FUTBOLA Emakumezkoen gorengo mailako 3. multzoan 6 partida jokatu dira eta Euskaldunak 3 irabazi eta 3 galdu ditu. Azken partida Ubitarten izan zen, Goierriren aurka (1-0). Sailkapenean 5. postuan daude eta larunbatean Oñatin jokatu dute, 3. sailkatuaren aurka (16:15).

Zumeatarrakoak duatloian

DUATLOIA Euskal Herriko mendi duatloi txapelketa martxan dago eta inguruan egiten dira bi proba. Bata, Amasakoa. Urriaren 23an egin zen eta bertan izan zen Zumeatarra taldeko Javier Duque. Adunakoa azaroan korrituko da. Lasterka, triatloian, duatloian... ekimen betean dago Zumeatarra taldea. Amasako argazki gehiago Aiurri.eus gunean ikusgai daude.



AIURRI



Ansa. UTS

Loitegi eta Ansa, Azpeitiko txapelketako finalistak

ERREMONTEA Loitegi-Barrenetxea eta Ansa-Martirena bikoteen arteko norgehiagoka

Erredakzioa URNIETA Aurreko asteburuan finalerako txartela lortzeko bi norgehiagoka jokatu ziren. Loitegi-Barrenetxea eta Urrutia-Larrañaga bikoteen artekoan eskualdekoak nagusitu ziren (40-29), maila handia erakutsiz.

Ansa-Martirena eta Urriza-Labakaren artekoan lehia estuafoa izan zen (35-40).

Asteburu honetako finalisten artean bi urnietar elkarren aurka lehian ariko dira.

Antolatzaileek adierazi dute hamar kamixeta eta bi zesta zozketatuko dituztela iragarri dute. 22:00tan hasiko da, Izarraitz pilotalekuan.

Bi partida Allurralden

ESKUBALOIA Leizaran taldeko senior mailako neskek bi partida jokatu dituzte, 24 orduko epean.

- Leizaran-Legazpi
Urriak 29, ostirala. 20:30.
 - Leizaran-Urola
Urriak 30, larunbata. 19:30.
- Infantil neskek Allurralden ariko dira, larunbatean (11:30). Eta jubenil neskek Ormaiztegin. Gainerako taldeek jai izango dute.



DEBORAFRUTOS

Laugarren garaipena Kobe kopan

MOTORRA Debora Frutos andoaindarrak eta Jokin Urkizu amasarrak podiuma lortu zuten Pozoblanco Hiriko lasterketan. Jada lau podium eskuratu dituzte bost lasterketan. Eraitza izugarria da auto-lasterketetan dagoen maila altua ikusita.



BURUNTZALDEA IKTW

Igerilarien lehen jardunaldia

IGERIKETA Larunbatean, ligako lehen jardunaldia ospatu zen Lasarte-Oriako Maialen Chourraut igerilekuan. Bertan lehiatu zuten, Asier Barcena, Laida Guerrero, Ane Meyer, Ohian Matute eta Amets Albizu andoaindarrek. Buruntzaldea Igeriketa Taldekoek gazteen maila ona nabarmendu zuten.



LEIZARAN

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 28

ANDOAIN Lehiaketa martxan
2022. urteko Udal egutegia osatzeko argazki-lehiaketa. Oinarriak Andoain.eus webgunean.
Azken eguna: Urriak 31.

URNIETA Lehiaketa martxan
2022ko egutegia osatzeko argazki-lehiaketa. Oinarriak: Urnieta.eus.
Azken eguna: Azaroak 5.

URNIETA Parketarrak
Haurrentzat aisialdia.
17:00-18:00, 3-5 urtekoak.
18:00-19:00, 6-9 urtekoak.
San Juan plaza.

OSTIRALA 29

URNIETA Ipuin kontaketa
Ixabel Agirresarobe.
17:00, Lekaio.

URNIETA Kale antzerkia
Babo Royal Klown.
18:00, San Juan plaza.

LARUNBATA 30

ANDOAIN Erakusketa
"Formal formal", gazte sortzaileen eskutik.
Azken eguna. Bastero.

URNIETA Rol jokoak
Habitantes de Innsmouthek antolatuta rol, estrategia eta simulazio jardunaldiak.
Urriak 30-azaroak 1, Lekaio.



Gau beltzerako prest daude Urnietan. MAGALE

ANDOAIN, URNIETA Gau beltza

Andoainen ez da deialdi berezirik egin baina ziurra da haur eta gaztetxo asko moztortuko direla. Urnietan Magalek ospakizun irekia antolatu du.
Urriak 31, igandea. 19:00, San Juan plaza.

IGANDEA 31

URNIETA Kale antzerkia
Laxaro Tormeseko itsumutila. Galiziatik datorren ikuskizuna da. Hitzik erabili gabeko antzezlan da, familia osoarentzat egokia. Aktoreek maskarak erabiltzen dituzte.
18:00, Sarobe.

ASTELEHENA 1

URNIETA Erakustaldia
Habitantes de Innsmouth elkarteak antolatuta, eskrima erakustaldia.
12:00, San Juan plaza.

OSTEGUNA 4

ANDOAIN Ikastaroa
Helduen plaza-dantza ikastaroa, Urkiren eskutik. Hasiberrientzat eta arituentzat. Astelehenetan, azaroaren 8tik apirilaren 11ra. Telefonoa: 629 375 147.
Izena emateko azken eguna.

OSTIRALA 5

ANDOAIN Erakusketa
Martin Ugaldere menduurrenarekin bat eginez, Andoingo idazle eta kazetariari buruzko erakusketa ikusgai izango da.
Azaroak 5-abenduak 4, Bastero.


Beldurraren etxea

11-16 urte bitarteko gaztetxoei begira Gaztelekuak arratsalde pasa deitu du, ostiral honetarako. Arrakasta handia izan ohi du beldurraren etxeak, eta aurtengoa seiko taldetan bilduta beldurraz gozatzeko aukera izango dute. Arratsaldeko 18:00tan hasiko da ospakizuna. Udalak adierazi duenez, antolaketa lanetan DBH3 eta DBH4ko ikasle talde bat aritu da.



GUAIXE

ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
El bebe jefazo: Negocios de familia
Larunbata, 30. 17:00.
Igandea, 31. 17:00.
Pokemon Pikachu
Larunbata, 30. 12:00.

Entre rosas
Lar, 30. 19:30, 22:00.
Igandea, 31. 19:30.
Astl. 1. 19:30, 22:00.
Tom eta Jerry
Igandea, 31. 12:00.
Elkinak
Larunbata, 30. 12:00.



SINOPSISIA



Entre rosas
Zuzendaria: Pierre Pinaud. **Aktoreak:** Catherine Frot, Fatsah Bouyahmed, Olivier Breitman, Olivia Côte, Vincent Dedienne, Melan Omerta, Marie Petiot. **Herrialdea:** Frantzia (2020). **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 95 minutu.

Komedia lore artean

Evek munduko arrosarik ospetsuenak sortzen zituen, baina denborarekin modaz pasata geratu da, erabat ozpinduta. Porrot egiteko zorian

dagoela eta, ideia distiratsu bat bururatzen zaio Vera laguntzaileari. Proposamenak bien bizitza betiko alda dezake. Kritikak saritu egin du filma.

SINOPSISIA

Bebe jefazo: Negocios de familia
Zuzendaria: Tom McGrath. **Herrialdea:** AEB (2021). **Generoa:** Marrazki bizidunak. **Ekoizlea:** DreamWorks. **Iraupena:** 97 minutu.

Marrazki bizidunak Basteron

Templeton anaiek haur izateari utzi diote. Denborarekin bata bestearengandik urundu dira, baina ikuspegi aurrerakoia duen

haur jefe berri bat agertu da. Berririo batzeko eta familia-negozio berri bat sortzeko aukera berria ikusi dute.



Zinema euskaraz

Datozen egunetan hiru emanaldi iragarri dituzte. Larunbatean, igandean eta azaroko lehen larunbatean zinema euskaraz, Bastero Kulturunean. Hiru saioak eguerdiko 12:00tan hasiko dira.



Saritutako argazkia aurtengo 2021eko iraileko egutegia ilustratzeko orrialdean. Argazkian, Unanue epaimahaikide eta argazkilaria eta Alicia Muñoz saritua. AIURRI

Egutegia osatzeko lehiaketa bana Andoainen eta Urnietan

BI udalerrietan herrikideen parte hartzearekin osatu nahi dute 2022ari dagokion egutegia

Erredakzioa ANDOAIN

Urnietan hamairu argazki hautatutako dituzte 2022ko Udal egutegia osatzeko. Parte hartzeko azken egunak dira, azaroaren 5ean amaitzen baita epea. Bertintasuna gaitzat harturik, Urnietan kokatutako argazkiak izango dira eta argazki bakoitzaren kokapen zehatza (kalea, plaza, parkea, bidea, mendia...) adierazi beharko da, izenburuaren ostean. Egile bakoitzak gehienez bost argazki aurkez ditzake. JPG formatuan aurkeztu behar dira, horizontalak, A4 tamainakoak eta 300 ppp-ko bereimen mailan. Artxibo bakoitzaren karga gehienez bost megakoa izango da. Saria lortzen duen argazki bakoitzak 40 euroko saria eskuratuko du. Egile bakoitzak gehienez bi sari lortu ahal izango ditu. Hautatutako hamairu argazkiak 2022 urteko Udal egutegia osatzeko erabiliko dira.

Andoaingo Udalaren lehiaketa

Andoainen 12 argazki aukeratu dituzte, eta saridun bakoitzak 100 euroko saria eskuratuko du. Aurtengoan pertsona berak sari bakarra jaso ahal izango du. Gaiari dagokionez, "Andoaindarrak" da bostgarren edizio honetan aukeratu den gaia. Argazkiak argitaratugabeak izan behar dute eta egile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkez ditzake. Aukeratu den argazkian azaltzen diren pertsonak identifikagarriak balira, egutegian azaltzeko haien baimena aurkeztu beharko da. Lehiaketa 16 urte gorakoei zuzenduta dago. Bereizmen handiko JPG-ak aurkeztu behar dira, bi eta 10 mega artekoak. Gainerako ezaugarriak: 4350x2900 pizelekoa, 300 ppp bereimenekoa, RGBra egokituta. Parte hartzeko azken eguna hilaren 31 izango da. Irabazleen berri azaroaren 15ean emango dute.



Urnietako hilerria kotxez gerturatzen direnek Erratzu industrigunearen hasieran aparkatzeko aukera izango dute. AIURRI

Azaroaren 1erako neurriak hartu dituzte bi udalerrietan

Alarma-egoera bertan behera geratu bada ere, prebentzio neurriak eusteko deia egin dute

Erredakzioa URNIETA

Hilerrirako joan-etorria areagotu egingo da asteburuan, bereziki azaroaren 1ean. Urnietako Udalak aurreratu duenez, udal langileak eta udaltzainak bertan izango dira, argibideak emateko prest. Kotxez gerturatzen direnentzat, Erratzu industrigunearen hasieran aparkatzeko aukera izango dute. Udalak, bestalde, zuhurtziaz jokatzeko eskatu die hilerria hurbiltzen direnei: "Udalak hainbat gomendio zabaldu nahi ditu eguna modu kontrolatu eta egokian igarotzeko. Osasun-larrialdia amaitu bada ere, datuek gora egin baitute azken egunetan: Musukoa erabili kanposantuaren barnealdean, 1,5 metroko distantziak errespetatu, gel hidroalkoholikoa eskuetan bota hilerria sartzerakoan eta irteterakoan eta hilerriaren behekoaldetik sartu eta gaikaldetik irten".

Hiribusa Andoainen

Aurreko urteetan bezala, joan-etorrietarako bus zerbitzua eskainiko du Andoaingo Udalak.

Urriak 30, larunbata

Sorabilla-Herrigunea-Hilerria: 16:00-17:00.
Hilerria-Herrigunea-Sorabilla: 16:40-17:40.


Urriak 31, azaroak 1

Sorabilla-Herrigunea-Hilerria: 09:00-10:00-11:00-12:00-13:00.
15:00-16:00-17:00-18:00.
Hilerria-Herrigunea-Sorabilla: 09:40-10:40-11:40-12:40-13:40.
15:40-16:40-17:40-18:40.

HIRIBUSAK ZERBITZU BEREZIA ESKAINIKO DU ANDOAINEN, ASTEBURU OSOAN ZEHA

ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu urriaren 31n: goizeko 03:00tan, 02:00ak izango dira.



MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak frantsese-ko klaseak ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresarako klaseak. 693 692 823 - 665 719 827

Ingeles irakasle diplomatu behar da klaseak emateko. English First Certificate azterketa prestatzeko. 693 692 823

Andoaingo emakume pentsioduna hizkuntza

laguntza edo mintz-lagun bila dabil: Gaztelaniaz eta ingelesez / danesaz aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: reflexologist45@yahoo.co.uk

MERKATU TXIKIAN PARTE HARTZEKO

Emaillez: diseinua@aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Tel.: 943 300 732
Bulegora etorrita: Arantzibia 4-5, behe. Andoain

Urte askotarako!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- Whatsapp bidez: 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- Arantzibia 4-5, behe Andoain
- Telefonoa: 943 300 732

TELEFONO-ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

Kulturaz blai Urnietan

Ipuin kontaketa saioak, kale antzerki emanaldia, rol jokoak, eskrima erakustaldia... ekitaldiak betetarik dator asteburua Urnietan. Hori gutxi ez eta gau beltza eta beldurraren etxea ospatuko dira. Lehenengoa San Juan plazan eta bigarrena Gaztelekuan. Ekitaldi guztien ordutegiak astekari honetako 14. orrialdean aurki daitezke, Agenda atalean.



AIURRI

Egunean Behin lehiaketa

Urriaren 18tik 24rako astea, 8. denboraldiko laugarrena izan da. "Aiurri" taldean aritu diren jokalariek guztien artean zozketa egin eta gero, irabazlea Jon Ander Belamendia izan da. Aste honetako lehiaketa martxan dago, bosgarren aukera ehunka jokalarientzat. Aurreko hiru asteko irabazleak "Ezkide", "Aimar" eta "Haizea" izan ziren.



AIURRI



km



Aiurri.eus | Bideo-sorta zabala



Lurdes Iriondo gogoan



Lebiton konpartsaren kalejira



Katxalin elkartearen kanpaina




Herri lanak



Ezusteko gertaerak



Kulturartekotasun jaialdia



Eguraldia



Elkarretaratzea Donostian



Herri-kirolak Xoxokan